

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren helburua da helduei mundu digitalean seguru eta lasai ibiltzen irakastea. Lehenik, teknologiarekiko beldurra kentzen laguntzen dugu, pauso errazekin eta modu argian azaltzen dugulako, bakoitzaren erritmoa errespetatuz. Horrela, konfiantza hartzen dute eta tresna digitalak ondo erabiltzen ikasten dute.

Gainera, autonomia digitala sustatzen dugu. Hau da, eguneroko zeregin digitalak –mezuak bidaltzea, deiak egitea, informazioa bilatzea edo bideoak ikustea– norberak bakarrik egiteko gaitasuna ematen dugu. Horrela, helduek independenteki moldatzen dira eta eguneroko bizitza errazagoa egiten zaie.

Azkenik, harreman sozialak eta ongizatea indartu nahi ditugu. Teknologiari esker, familia eta lagunekin kontaktuan egon daiteke, bakardadea gutxituz eta bizi-poza handituz. Horregatik, laguntzen diegu mundu digitalean konektatuta egoten eta ongi sentitzea lortzen.

Laburbilduz, gure enpresak teknologia tresna erabilgarri eta lagungarri bihurtzen du, helduen bizitza errazteko eta hobetzeko.